

Artelekun egin ziren 2005eko Copyleft jardunaldiak zabalkundeko hitzaldi batekin hasi ziren. Copyleft eta bere lizentziak zer diren azaldu zuten bertan. Jardunaldien koordinatzaileetarikoa Xabier Barandiararen iritziz, galdera horiei ezin zaie ingurune digitala kontuan hartu gabe erantzun, ingurune digitalari esker beste modu batean kudeatzen eta ulertzen baita kulturaren jabetza, hau da, "ingurune digitalak auzitan jarri ditu propietateari buruz eta enpresen arteko lehiari buruz garai industrialean sustraitu ziren kategoriak".



Jardunaldien antolatzaileen esanetan, copyleft-ak ezabatu egiten du kulturaren eta jakintzaren ekoizle/kontsumitzaile eskema, eta ekoizpen eredu berriak sortzen ditu, berrikuntza prozesuen mesederako. Aldaketa hori "lege hezurdurari esker gertatu da (lizentziak), lehen lehiaren leku zena askatasunaren leku bihurtu baita orain", argitu zuen Xabier Barandiaranek. Jabetza intelektualak kudeatzeko lizentziak Copyleft-aren tresna juridikoa bihurtu dira lizentziak azken urteotan. Copyright eskemaren aurkako mugimendua sustraitu zen garaian, mugimendu erabat ideologikoa zela geratu zen agerian, praktikan jartzeko unean hutsuna nabariak baitzuten. Izan ere, inoiz gertatu zen kultur sorkuntzen egileak bere lana erregistratzeari uko egitea, baina ondoren edonork erregistra zezakeen bere izenean delako lan hori, etekinak beretzat hartuz. "Creative Commons lizentzien benetako proposamena da copyright legeak iraultzea, egileari askatasun gehiago emanaz copyright eskubideak berreskuratu eta aplikatzeko, hau da, egileak bere kabuz kudeatu ahal izatea eskubide horiek eta, nahi badu, eskubide horien zati bat eman ahal izatea erabiltzaileei, ikusleei edo bere obran oinarritua lan egin nahi duten beste sortzaile batzuei", Natxo Rodriguezen hitzetan.

Software librea da copyleft-aren erabilera gehien zabaldu den esparruetariko bat. Miliroi erdi programatzaileek kalitate eta aberastasun handiko softwarea sortu dute, hastapenetan nekez aurreikusi zitekeen berrikuntza maila handikoa. Eta munduko milaka erabiltzaileek tresna horiez baliatzen dira bere ohiko eginkizunetan. Beste aldetik, produkzio inmaterialaren beste arlo batzutan ere Copyleft ereduak proposatzen hasi dira azken bost urteotan. Sarrera libreko "Wikipedia" interneteko entziklopedia dugu horren adibideetako bat. Mundu osoko boluntariok hizkuntza bat baino gehiagotan idatzia dago eta erabiltzaileek eskubidea dute edukiak kopiatzeko, banatzeko eta aldatzeko. Wikipedia, hain zuzen, ekoizteko copyleft ereduaren froga ezagunena dugu. Beste adibide bat da ikerketa zientifikoa, alor horretan ere jabetza intelektualak oztopoak jartzen baitzizkio aurrerapenari. Izen handiko unibertsitatek informazioa askatzea erabaki dute, ikerketaren joko zelaiak ez dezan mugarririk izan. Kazetaritzaren eta literaturaren alorretan ere copyleft-a gero eta erabiliagoa da. Argitaletxe batzuk, adibidez, beren lanak copyleft lizentzien pean argitaratzea erabaki dute eta *20 minutos* aldizkariak, berriz, erabat copyleft edukiez osaturiko argitalpenak errentagarriak izan daitezkeela frogatu du.

Copyleft ereduak gaur egun duen egiteko nagusia da bilatzea nola aurre egin software patenteen erruz dauden oztopoei eta nola gainditu sortzaileen arteko lankidetzaz zailtzeko enpresek ipinitako trabak. "Bidegurutze historikoan gaude gaur egun, informazioaren gizarteak etorkizunean izango duen egitura, hezurdura, ari gara prestatzen, eta copyleft ereduak hautabide egokia da langintza horretan", esanez amaitu zuen Xabier Barandiaranek.

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago.

Hemengo testuak nahiz itzulpenak kopiatu, banatu eta jende aurrean erakutsi ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.

Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu:

- [gazteleraz](#)
- [ingelesez](#)